

## 6. Euskarazko tokiko komunikabideen egoerari begirada bat

---

**Ane Urkola Agirrezabala**  
Mondragon Unibertsitatea  
**Eneko Bidegain Aire**  
HEZIKOM, Mondragon Unibertsitatea

Artikulu honen helburua da euskarazko tokiko komunikabideen egoeraren aurkezpen berri bat egitea, azken hiruzpalau urteetan komunikabide batzuk sortu edota bateratu direlako, bereziki. Arreta jarri da sortutako komunikabide berrietan eta, bereziki, Tolosaldeko Ataria komunikabidearen egoera deskribatu da. Horrez gain, ekoizpen datuak eta Interneteko audientziak begiratu dira.

Euskarazko komunikabideen sektoreak maiz azpimarratzen du komunikabide asko direla, indargune gisa. Hain zuzen ere, Euskal Herrian 90 bat tokiko komunikabide daude, euskara hutsez ari direnak. Prentsa, irratia eta telebistak kontuan hartuta. Batzuk, eskualdeko albisteak argitaratzen dituzte, badaude herri mailako agerkariak ere, eta baita doan zabaltzen diren udal aldizkariak ere.

Bi multzo nagusitan banatzen dira tokiko euskarazko komunikabideak. Batetik daude Berria taldearen ingurukoak, Hitza izendapenez ezagutzen direnak, hala nola Goierriko Hitza, Urola-Kostako Hitza, Bidasoaldeko Hitza, Busturialdeko Hitza, Lea-Artibaiko eta Mutrikuko Hitza eta Irutxuloko Hitza. Bestetik daude Tokikom plataformaren barruan daudenak (batzuk plataformako bazkide dira, eta beste batzuek lankide hitzarmenak dituzte soilik). Azkenik, beste zenbait independenteak dira, batzuk Topagunea sareko kide dira eta beste batzuk ez daude inon federatuta.

2013an tokiko komunikabide horien erradiografia bat egin zuen MUko Hezikom ikerketa taldeak, baina datuak eguneratzeko beharra nabaritu da, geroztik zenbait aldaketa gertatu direlako tokiko komunikabideen esparruan, indarrak batzeari begira. Aldaketa horien deskribapen bat egitea da artikulu honen helburua.

Lan hau osatzeko, galdeketa bat bidali zaie tokiko hedabide guztiei, eta galdeketa horietan ateratako informazioa baliatu da ondorioak ateratzeko. Euskarri ezberdinetako hedabideei bidali zaie galdeketa, nahiz eta denek ez duten erantzun. Agerkari digitalen kasuan, honako hauek erantzun dute: Aikor, Anboto, Erran, Goierriko hitza, Guaixe, Hiruka, Lea-Artibaiko Hitza, Maxixatzen, Mailope, Noaia, Pil pilean eta Uztarria. Telebistei dagokienez, Goierri Telebista eta 28 Kanalak erantzun dute. Horrez gain, Kalaputxi herri aldizkariak ere bidali ditu erantzunak.

2013tik hona zertxobait aldatu da tokiko komunikabideen mapa, komunikabide berriak agertu direlako eta beste batzuek bat egin dutelako.

Hauek dira, gaur egun, Tokikom-eko bazkide diren hedabideak: 28 kanala, Aiaraldea.com, Aikor, Aiurri, Alea, Anboto, Antxeta Irratia, Baleike, Barren, Berton, Erlo Telebista, Euskalerria Irratia, Goiiena, Goierri Telebista, Guaixe (eta Beleixe Irratia), Hernaniko Kronika (eta Urumeako Kronika), Hiruka, Karkara, Guaixe, Mailope, Maxixatzen, Noaia, Pil-pilean, Prest, Ttipi-Ttapa, Txintxarri, Uriola, Uztarria eta Xorroxin Irratia.

Topagunea-n daudenak baina ez Tokikom-en, ondoko hauek dira: ...eta Kitto, Aldaize, Artzape, Begitu, Berriketan, Danbolin, Drogeteniturrri, Esan-erran Irratia, Pulunpe Irratia, Kalaputxi. Federatuta ez dauden

aldizkari, irrati edo telebistak dira: Kanaldude, Zorrotz Morrotz, Arrakala Irratia, Radixu Irratia, Itsuki Irratia, Koska Irratia, Aralar Irratia, Karrape Irratia, Arraio Irratia, Zintzilik Irratia, Ttanttakun Irratia eta Ezkerraldeko KZ.

2013an egindako ikerketak erakustera eman zuen bezala, euskararen hedapenaren maparen arabera da tokiko komunikabideena ere. Euskarazko tokiko hedabideak Gipuzkoako herri guztietara ailegatu dira. Kasu gehienetan, eskualde mailako hedabideak dira, baina herri mailako informazioa lantzen duten hedabideak ere sortu dira: Karkara (Orio eta Aia), Baleike (Zumaia), Noaua (Usurbil), Maxixatzen (Azkoitia) edota Uztarria (Azpeitia). Bizkaiaren zati handiaren ere badaude euskarazko tokiko hedabideak, Enkarterrietan eta Meatzaldean eta Plentzia-Mungian izan ezik (tokikoei buruzko azken ikerketa egin zenean, Ezkerraldean ere ez zegoen euskarazko komunikabiderik, eta orain Geuria daukate). Nafarroa Garaia ipar-mendebaldean Guaixe, Mailope, Xorroxin Irratia, Xaloe Telebista edota Ttipi-Ttapa daukate. Baina horiei gehitu behar zaie Irati Irratia, azken urteetan berraktibatuta dutena. Ipar Euskal Herrian ere eskualde mailako irratia – Irulegiko irratia, Xiberoko Botza, Gure Irratia – daude. Arabako hedabiderik garrantzitsuenak, berriz, Aiaraldea eta Alea hedabideak dira.

## 1. Komunikabide berriak

Krisi garaia ez dira une hobereak komunikabide berriak sortzeko, baina berritik berri sortutakoak aipatu behar dira:

**Geuria**  
HEGO URIBEN HERRI KOMUNIKABIDEA GEURIA EUS

- **Geuria:** Hego Uribe eskualdeko hilabetekari bat da, egunero berritzen den webgunea ere baduen komunikabidea. Tokikom-eko bazkidea da.

**puntua**

- **Puntua:** Goiena taldeak astero argitaratzen duen aldizkari berria da. Goiena ez bezala, ezin da doan jaso, harpidetza behar da. Aldizkari honek ordezkatzen du Goiena-ren lehengo ordainpeko zenbakia. Hain zuzen, Goienak beti argitaratu ditu bi zenbaki astean: bata etxe guztietan zabaltzen zuena eta bestea harpidedunei bakarrik helarazten ziena. Bigarren horren ordeztatu dute Puntua aldizkaria.

Bestalde, azpimarratu behar da Iruñeko Euskal Herria Irratiak lizentzia lortu zuela 2015ean, urte luzez ezin lortuz ibili ondoan. Irati Irratia erdi hilda egon ondoan, berraktibatuta dute 2013an. Halaber, Xaloe telebistak Nafarroa osoan emititzeko lizentzia lortu zuen.

## 2. Komunikabideak elkartzetik sortutako proiektuak

Euskarazko komunikabideen fragmentazioaren isla da herri askok bere aldizkari propioa daukela, baina azken urteetan eskualde mailako komunikabideak sortzeko joera ari da zabaltzen, nahiz eta eskualde guztietan ez den bururaino eraman bateratze egitasmoa. 2013tik hona aldizkari bateratu berriak sortu dira:



- **Alea:** Hirinet.net webgunearen tokia hartu du, Goiena eta Berria komunikabideen elkarlanetik sortutako aldizkariak. Arabako albisteak ematen ditu.



- **Uriola:** Bilboko eta inguruko berriak ematen dituen webgunea da, Bilbo Handiko komunikabideen arteko elkarlanetik sortutakoa. Prest, Berton, Elgera eta Zorrotz Morrotz aldizkarien eta Bilbo Hiria Irratiaren artean osatutako webgunea da. Komunikabide bakoitzak bere bidea jarraitzen du, baina beren edukiak Uriola.eus webgunean biltzen dituzte.



- **Hiruka:** Uribe Kostako albisteak ematen dituen astekari berria da. Lehengo UK eta Ukberri aldizkaria ordezkatu ditu.



- **Urumeako Kronika:** Hernaniko Kronika egunkariari gehitu diote Astigarragako eta Hernaniko berriak jasotzen dituen astekaria, Urumeako Kronika izena duena.



- **Zarauzko Hitza:** Webgune horrek biltzen ditu Urola Kostako Hitza aldizkariaren Zarauzko saileko berriak, Erlo telebistaren edukiak eta Arraio Irratiarenak.



- **Erran.eus:** Xorroxin Irratiak eta Ttipi-Ttapa aldizkariak elkarren artean osatu duten webgunea da, Nafarroa Garaia iparraldea eta Lapurdiko Xareta eskualdeko berriak ematen dituena.



- **Tolosaldeko Ataria:** Tolosaldeako Hitza, Txolarre irratiak eta Galtzaundi aldizkaria elkartu ziren 2013an, produktu batu bat sortzeko. Tolosaldea eskualdeko eta eskualdeko herrietako berriak ematen ditu.

### 3. Kasu azterketa: Tolosaldeko Ataria



Kasu azterketa bat egin da Tolosako Atariarekin, hain zuzen, bateratze proiektu berrienetarikoa delako eta hiru urteko esperientzia duelako dagoeneko. Komunikabide horretako arduradunekin hitz egin da informazio xehea jasotzeko. Tolosaldeko Ataria Tolosaldeko tokiko euskarazko hedabidea da. Tolosaldeko albisteak lantzen dituen hedabidea da, eta Tolosan dauka egoitza nagusia. Egunkariak gain, astekaria, irratia eta webgunea ere barnebiltzen du. Zortzi orriko astekaria argitaratzen dute asteartetik ostegunera, eta 32 orriko astekaria, ostiraletan.

Prentsaz gain, irratia eta webgunea ere baditu hedabideak; hainbat programa ekoizten dituzte egunero –Pasahitza, Entzuteko jaiok eta Hamaiketakoa, besteak beste–, eta webguneak ere etengabeko jariora dauka. Egunkariko eta astekariko edukiak igotzeaz gain, e-mailera ailegatzen diren abisuak, deialdiak, etab. webgunera igotzen dituzte etengabe, eta prentsa idatzian ikus ezin daitezkeen multimedia artxiboak ere lantzen dituzte: argazki galeriak eta bideoak, esaterako. Horretaz gain, eskelak, zorion agurrak, zozketak, eta agenda ere ikus daitezke webgunean.

Atariaren helburu nagusia, beraz, Tolosaldea osatzen duten 28 herrietako herritarren komunikazio beharrak asetzea da. Lankidetzak akordioak dituzte Tokikom, 28 Kanala eta Hamaika Telebistarekin, eta Hekimen hedabideen elkarguneko kidea da. Tolosako Udalak, beste udalekin batera, lau proiektu komunikatiboen bateratzea bultzatu zuen. Horrela, 2011n existitzen ziren lau hedabide bi bihurtu ziren 2015ean: alde batetik, Tolosaldeko Ataria izenez ezagutzen den Tolosako Komunikazio Taldea plataforma –paperean, irradian eta interneten lan egiten duena–, eta, bestetik, Tolosako Komunikabideak, telebistaren alorrean lan egiten duen 28 Kanala izenez ezagutzen dena.

Galtzaundik, Txolarrek eta Tolosaldeako Hitzak askotan egiten zuten lan batera, baina hedabide bakoitzak bere ibilbide propioa zuen. 2013. urtean, Txolarrek, Galtzaundik eta Tolosaldeako Hitzak bilera asko eta negoziazio ugari egin zituzten, eta elkarrekin lan egitea erabaki zuten. Tolosaldeko Atariako koordinatzaileak azaltzen duenez, udalen papera funtsezkoa izan zen bateratze horretan. Udalek aspalditik eskatzen zuten Hitzak, Galtzaundik eta Txolarrek bat egitea; izan ere, ez zuten egingarri ikusten hedabide bakoitzari, bere aldetik, laguntzak ematea. Garai hartan, gainera, sekulako gabezi ekonomikoak zituzten hiru

hedabideek, eta udalen erantzunak "izugarri" lagundu zieten: hiru urteko lan-hitzarmenak egin zituzten, eta horrek, egonkortasun handia eman zieten hedabideen lehen urteetan.

Bateratzearen ondorioz, hedabide bakoitzaren diru-sarrerak – harpidedunei, publizitateari eta Eusko Jaurlaritzari eta Tolosaldeko udaletxeen diru-laguntzei dagokizkienak– handitu egin ziren, eta hedabide bakoitzaren kostuak, berriz, murriztu.

### **3.1. Tolosaldeko Ataria-ren zabalkundea eta ale-kopurua**

Tolosaldeko euskarazko hedabideak 3.000 ale inguru argitaratzen ditu egunero. Ale horietako gehienak bere harpidedunentzat –2.600 ale– eta Berria egunkariak Tolosaldean dituen harpidedunentzat dira; gainerakoak, eskualdeko instituzio publikoetan banatzen dituzte.

Harpideduna izanez gero, deskontuak eta beherapenak izaten dituzte eskeletan (%50), iragarki laburretan (%25) zein zorion agurretan, eta Atariak eta Galtzaundi Euskara Elkarrekin antolatutako ekimenetan. Kultur ekitaldietarako zein kirol partidietarako zozketetan parte hartzeko aukera ere ematen du harpidedun izateak.

Harpidedun gehienen profila antzekoa da: herritar euskaldunak dira, euskararekin eta euskal nortasunaren normalizazioarekin kontzientziatutako jendea. Eskualdeko informazioa euskaraz irakurri nahi duten herritarrak dira, eta gehienak helduak dira, 30-50 urte artekoak. Tolosaldeko Atariaren kontsumitzeko faktorerik garrantzitsuenak gertuko eta tokiko informazioa irakurtzea eta euskarari bultzada ematea dira.

Tolosaldeko Atariaren erreferentzialtasuna poliki-poliki gora egiten ari dela erakusten dute CIES-en azken hiru neurketek, "atzo zer irakurri zenuen" galderari erantzunez:

- CIES-en "atzo" Tolosaldeko Ataria irakurri zutenak: 7.000 (2015eko lehen olatua, martxoa).
- CIES-en "atzo" Tolosaldeko Ataria irakurri zutenak: 9.000 (2015eko bigarren olatua, urria).
- CIES-en "atzo" Tolosaldeko Ataria irakurri zutenak: 14.000 (2016ko lehen hiruhilabetea).

Tolosaldeko Ataria sortu zenetik, multimedia izaera hartu du hedabideak, eta hori da hedabidearen ezaugarririk azpimarragarriena. Idatzizko albisteez gain, argazki galeriak, bideoak igotzen dira

webgunera. Hain zuzen, etengabeko hobekuntzak egin dituzte –eta egiten ari dira oraindik– webgunearen multimedia tresnak garatu eta herritarrei zerbitzu osoagoa eskaintzeko: argazki galeriak webgunera bertara igotzeko aukera, esaterako. Horretaz gain, pdf dokumentuak igotzeko aukera, zozketak eta inkestak egitekoa, atal bereziak sortzeko –kanalak– tresnak ere garatu dituzte.

Webgunearen formatua argiagoa eta txukunagoa da orain, eta komunitate atala ere garatzen ari dira etengabe. Tolosaldeko Atariaren helburu nagusietako bat herritarrekiko gertutasuna izanik, ahalegin berezia egiten dute eskualdeko herritar, elkarte eta udaletxeek nahi duten informazioa webgunera igo dezaten.

### 3.2. Webguneko bisitak

Azken urtean, Tolosaldeko Atariaren webguneak garapen itzela izan du, eta webguneko bisitak nabarmen igotzen ari dira; ekainean, esaterako, 95.903 bisita izan zituen; iaizko ekainarekin alderatuta baino 20.000 bisita gehiago. Martxoaz geroztik, bisitek goranzko joera izan dute: 67.925 bisita izan zituen martxoan, eta ekainean 95.903 bisita izatera ailegatu zen Atariaren webgunea.

2014ko datuekin konparatuz gero, 2015ean hazkunde nabarmena izan zuen ataria.info webguneak. Bisita kopurua bikoitza baino altuagoa izan zen; hain zuzen, %132,20ko igoera izan zuen bisitetan 2014tik 2015era, eta 2016an ildo beretik jarraitzen du. Bisiten euskarriari dagokionez, mugikorraren erabilera da azpimarragarria. 2015. urtean, urte osoan bisiten erdia (%49,70) mugikorretik jaso du, 2014ean baino %15 gehiago. Ordenagailutik sartu ziren erabiltzaileen %43,96, 2014an baino %16 gutxiago.

## 4. Tokiko komunikabideen maiztasuna

Tokiko hedabideen maiztasuna aldakorra da toki batetik bestera. Agerkari gehienak hilabetero argitaratzen dira: Plaentzia, Aikor, Geuria, Uztarria, Kalaputxi, Mailope eta Maxixatzen, esate baterako. Hedabide horiek guztiek, ordea, eguneroko lana egiten dute beren webguneetan, eta albisteak eguneratzen dituzte etengabe.

Hamabostero argitaratzen da Ttipi-Ttapa, eta astekariak dira Barren, Anboto eta Hiruka. Goiena, berriz, ostiraletan kaleratzen da, Puntua aldizkariarekin batera; Puntua harpidedunek soilik jasotzen dute. Asteartetik ostiralera argitaratzen dira Oarsoaldeko Hitza, Lea-Artibai eta Mutrikuko hitza (asteartetik ostegunera 8 orrialde, eta ostiraletan 16), Irutxuloko Hitza, Urola-Kostako hitza, Goierriko Hitza (asteartetik ostegunera 8 orrialde, eta ostiraletan Goiberri astekaria 16-24 orri artekoa), eta Busturialdeko Hitza.

#### **4.1. Formatua**

Aldizkari eta egunkarien formatuari erreparatuta, 2013ko ikerketaren antzeko datuak ikus daitezke. Aurtengo galdeketa erantzun duten hedabide gehienak A4 formatuan argitaratzen dira: Plaentzia, Aikor, Uztarria – A4 formatua baino pixka bat txikiagoa da –, Noaua, Barren, Mailope eta Maxixatzen, kasu. Anboto, berriz, A3 formatuan argitaratzen da, eta Geuria, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza, Oarsoaldeko Hitza, Urola Kostako hitza, Goierriko Hitza eta Irutxuloko Hitza, besteak beste, tabloide formatuan argitaratzen dira. Tolosaldeko Ataria ere tabloide formatuan argitaratzen da asteartetik ostiralera, eta ostiraletan 32 orriko astekaria kaleratzen dute, A4 formatuan.

Goienak beste aro bat hasi berri du. Egunkari paperean inprimatzen hasi dira 2016ko urrian, baina aldizkari itxura handiagoa dauka; 48 orrialde ditu. Horrez gain, Goiena Klubeko bazkideek astero etxean jasotzen dute Puntua aldizkaria.

Datu horiek kontuan hartuta, argitalpen bakoitzak hilabete bakoitzean zenbat orrialde argitaratzen duten zehaztu da ikerketa honetan; horretarako, A4 formatua hartu da erreferentziatzat, eta finkatu da bi orrialde argitaratzen dituztela A3 orrialdean argitaratzen duten egunkariak eta aldizkariak. Hori horrela, hilabeteko orri gehien argitaratzen duen aldizkaria Goiena da, 2013. urtean bezala. 384 orri argitaratzen dituzte egunkarian, eta 188 orri Puntua aldizkarian. Guztira, beraz, 575 orri argitaratzen dituzte hilabetero.

Goienaren atzetik daude Tolosaldeko Ataria, Lea-Artibaiko eta Mutrikuko Hitza eta Goierriko Hitza. Goierriko Hitzak 326 orri argitaratzen ditu hilabetean eta Tolosaldeko Atariak eta Lea-Artibaiko Hitzak 320 orri.

Anboto eta Hiruka astekariak 224 orri argitaratzen dituzte hilabetero. Barren astekariak eta Ttipi-Ttapa hamabostekariaren kasuan, 104 orri argitaratzen dituzte hilabetean. Hilabetekariaren kasuan, 16-40 orri artean argitaratzen dituzte hilero.



## 4.2. Egunkariak balira...

Tokiko komunikabideen urte osoko ekoizpena batuz gero, batez beste egunero 70 orrialdeko egunkari bat ateratzeko adina eduki egongo litzateke. Begi bistakoa da horrelako egunkari batek ez lukeela funtzionatuko Euskal Herri osoan, toki bakoitzeko jendeak bere herri edo eskualdeko informazioa nahi lukeelako. Eta toki bakoitzean argitaratzen den informazioaren arabera, denetan ezin da egunkari bat argitaratu. Gehien ekoizten duen komunikabidea Goiiena da. Goiiena eta Puntua astekariak ekoizten duten informazioa eguneroko batera ekarriz gero, tabloid formatuko 10 orrialdeko egunkaria atera ahalko litzateke. Goierriko Hitzak eta Tolosaldeko Atariak, gutxi gora behera 5 orrialde ateratzen dituzte eguneko. Anbotok 2 orrialde agertzen ditu. Hernaniko Kronika egunkari bat da, 2 orrikoa astean zehar eta 8 orrikoa asteburuetan. Gainerako komunikabideen ekoizpena txikiagoa da.

## 5. Tokiko hedabideetan lanean ari direnak

Ez da lortu eguneratzea tokiko hedabideetan lanean ari diren langileen kopurua, hedabide askok ez baitute galdeketa erantzun. Duela hiru urte egindako ikerketako datuen arabera, gutxienez 266 lagun ari ziren lanean tokiko hedabideetan. Ez da argitu krisiak zenbateraino eragin duen lantaldean, baina komunikabide berriak sortu direnez, lanpostu berriak ere sortu direla ondorioztatu da ikerketa honetan.

Langile kopuru handiena duen hedabidea Goiiena da, eta 48 langile ditu. Ondoren, Goierriko Hitzak dago, 14 langile ditu. Lea Artibaiko eta Mutrikuko hitza eta Tolosaldeko Ataria leudeke ondoren; hedabide bakoitzak 13 langile ditu. Anbotok aldizkaria dago hurrena zerrendan, 11 langilerekin.

Gainontzeko hedabide guztiek 10 langile baino gutxiago dituzte: Ttipi & Ttapa eta Barren aldizkariak eta Hiruka kooperatibak bederatzina langile dituzte, Xiberoko Botzak eta Geuria agerkariak seina. Gainontzeko hedabide guztiek bost langile edo gutxiago dituzte: Hala Bedi (5), Uztarria, Noaua eta Aikor (4), Plaentxiak hiru, Maxixatzenek bi eta Mailope aldizkariak bat.

Azpimarratu behar da Geuria agerkariko sei langileak berriak direla, lehen ez baitzen komunikabiderik eskualde hartan. Tolosaldeko Ataria hedabideak, aldiz, bateratu zituen Galtzaundi, Tolosaldeko Hitza eta Txolarre Irratiko langileak.

Langile guztien erantzunak jaso ez badira ere, lagin nahiko zabala da, azpimarratzeko langileen erdia erredaktoreak direla. Gainerakoek, komertzial eta publizitate lanak, zuzendari lanak, zierreko lanak, etab. egiten dituzte.

Lanaldiari dagokionez, langileen %74 ari da denbora osoz, hala nola 2013an baino %14 gehiago. Generoari dagokionez, langileen %58 emakumezkoa da. 2013. urtean, %68koa zen kopuru hori. Azkenik, aztertutako euskarazko hedabideetako langile gehienek bi urte baino gehiago daramate lanean. Hiruka kooperatibako langileen kopurua azpimarratu behar da: 2015eko urtarrilean sortu zen kooperatiba, eta ondorioz, kooperatibako bederatzi langileek bi urte baino gutxiago daramatzate lanean.

## 6. Tokiko hedabideen laguntzaile sarea

Aztertutako hedabide guztiek laguntzaile sare handia dute; laguntzaile sare horretako langile gehienak zutabegileak eta kolaboratzaileak dira.

593 laguntzaile zenbatu dira galdeketa egin ondoren, baina kopuru hori baino handiagoa bide da datu erreala. Haatik, laguntzaile horien inguruan ez dago informazio zehatzik. Ezin izan da zehatz-mehatz jakin laguntzaile horiek zer lan egiten duten; horietako batzuk zutabegileak eta kolaboratzaileak dira.

Horretaz gain, hedabide gehienek komunitate atal oso handia daukate; hedabide gehienek beren eskualde edo herriko hainbat eragilerekin harremanak dituzte, eta beren inguruko informazioa zabaltzen laguntzen diete hedabideei; webguneko komunitate atalera igotzen dituzte beren edukiak.

Azpimarragarria da, gainera, laguntzaile sare horrek borondate lana egiten duela gehienetan, militantziaz, bere inguruan euskara bultzatzeko.

## 6.1. Jendearen erantzuna eta komunitatea

Laguntzaile sarea eta komunitatea dira euskarazko komunikabideen (eta bereziki tokiko komunikabideen) berezitasun handietako bat, eta indargunea ere bai, hein handi batean. Komunitate horrek nola funtzionatzen duen galdetu zitzairen Guaixe, Goiena, Tolosaldeko Ataria eta Uriola-ko arduradunei.

Sakanako jendeak baikorki hartu du Guaixe-ren plataforma digital berria, bertako arduradunaren arabera: "Orokorrean jendea pozik dagoela sumatu dugu, baina ez da egon feedback bat orokorra. Ikusi duguna da jendeari interesatzen zaiona edo asko baloratu duena dela guk ere eskaintzea paperean iristen eskaintzen ez duguna, argazkiekin eta beste. Eskualde batean oso ongi funtzionatzen du argazki asko jartzeak, kuadrillenak. Jendeak askoz gehiago bisitatzen gaitu horregatik. Geroz eta informazio gehiago izan eta jario handiagoa izan, jendeak gehiago bisitatzen gaitu".

Jendeak Uriola proiektuari eman dion erantzunaz pozik daude Uriolakoak: "Hiru hilabete hauetan izan duen harrera ikusita eta jendearen kritikak entzunda, gure lan karga eta lan zama horrek apur bat badauka bere ordaina. Jendeak oso beharrezkoa ikusten du, oso ondo hartu du, gure akats guztiekin. Egia da, hemen ordu asko sartzen ari garela, hemen denok gainkarga bat dugula, baina bere ordaina badu bueltan".

Uriola-k Bilboko komunitateari ekarpena egiten diola diote: "Orain esan dezagun, Bilboko euskaldunak apur bat baduela komunikabide gehiagoren berri jasotzeko aukera. Lehen bat edo birekin elikatzen bazen, orain gehiago dauka eskura. Baina nik uste dut, bateratze honek orokorrean denoi egin digula mesede". Komunikabide bakoitzarentzat ere mesedegarri dela uste dute, "doako publizitatea" delako. Uriola-ri esker, komunikabide bakoitza jende gehiagorengana heltzen da.

Tolosaldean ere baikorki hartu dute aldaketa: "Jendearen aldetik ikusi dugu, esfortzua eta aldaketa ikusi dutela eta onerako sentitzen dutela. Badutela beraiek ere gogo gehiago beraien lana egiteko eta gurekin kontatzeko. Batzuetan ere balio izan digu, euskalgintza eta kulturgintza mundu bi horiek lotzeko eta harreman gehiago egoteko". Herri txikiekin harreman gehiago lantzeko beharra sumatu dute.

Plataforma digital horien berezitasunetarikoa bat da komunitateak parte hartzeko aukera daukala, horretarako prestatu duten sail baten bitartez. Guaixe-ren aldetik, alde batetik, astekariko kolaboratzaileak komunitatean sartu dituzte. "Horrek elikatzen du pixka bat komunitatea", dio bertako arduradunak. Gainerako jendearen parte

hartzea lortzeko, herri batetik bestera egoera desberdina dela aitortu du. "Hasieran egin genituen aurkezpen batzuk herrietan, herriko kultur eta bestelako taldeekin, zuzenean hitz egiteko eta animatzeko komunitateko kide egitera. Behin kide direla, batzuk ari dira igotzen gauzak, baina ez dauka oraindik nahi genukeen indarra", azpimarratu du. Horren arrazoia izan daiteke jendeak ez daukala "ohitura" eta "igual beste sare sozialetara errazago igotzen" dituztela edukiak.

Guaixeko arduradunaren ustez kontuan hartu behar da komunitatea elikatzeak ez duela lan karga bat eskatu behar jendearentzat, baizik eta beren blog edo webgunerako loturak igotzeko aukera izan daitekeela. "Baina askok ez daukate beren atari propio bat", ohartarazi du.

Goiena komunikabide handiagoa da, langile talde handiagoa dauka, eta lagun bat aritu zen lanean 2013ko irailetik, komunitate proiektua sortzeko, eta herriz herri aurkezteko. Orain, "kazetari dinamizatzaileak" dauzkate, komunitatea dinamizatzeko, jendearekin egoteko: "Zuk Arrasate edo Bergara kontrolatzen baduzu landu zure komunitate hori, zure iturriak", dio webgunearen arduradunak. "Alde batetik batzar batzuk egingo ditugu, taldetxo bat osatuko dugu komunitate hori zelan zaindu, sendotu, mantendu... Arau batzuk idatziz jarriko ditugu". Goienaren helburua da bere webguneko Komunitatea ataleko albisteak webguneko albiste bihurtzea eta paperaren zati bat ere elikatzea komunitateko kideen lanekin. Internet-ek erraztu du parte-hartzea, baina herritarren parte-hartzea lehenagotik ere bazegoen.

Komunitatea aktibatzea eta mantentzea ez da lan erraza, Goienako arduradunaren ustez. Tresna teknologikoa eskura jartzea da besteei emango liekeen aholkua. Horrez gain, Twitterreko jariora ere ziurtatu behar dela uste du. "Teknologia berriek ahalbidetzen dute, baina bereziki, kazetaria adi egon behar da. Berri emaile hori identifikatzen jakin behar da, zein den zure inguruan edo zein den zure informazio esparrua. Azkenean, iturriak identifikatzen jakitea da eta iturri horiekin interakzioa lantzea".

Jendeak beste bide batzuk – Facebook eta Twitter bereziki – erabiltzeko ohitura hartua du gauzak zabaltzeko, Uriolakoen ustez: "Orduan, erronka oso gogorra da jendeak hau sare sozial baten moduan hartzea. Guk esaten diogu jendeari, kalean zaude, kalera atera eta zerbait ikusten duzu, nonbaiten jaiak direla. Argazki bat atera eta etxera iristen zarenean komunitatera zoaz eta hori albiste egiten duzu. Elkargune bat izan daiteke ere. Horretara ez dago jendea ohituta, baina saiatuko gara lortzen".

Tolosaldeko Ataria-ko komunitatea oraindik dinamizatzen ari dira. Hastapenean 60 bat zeuden izena emanda, eta Ataria-ko langileek berek sustatzeko lana egin dute. Parte hartzea irregularra da: "Agian Villabonako pilotazale batek bi asteko ekitaldi batzuetan berak idatzi zuen dena eta parte hartu zuen. Baina handik bi hilabetera ez du ezer idatzi. Orduan dinamika hori falta da oraindik". Herri handietan mugimendu gehiago dagoela dio arduradunak; orain pentsatzen ari dira nola dinamizatu herri txikiagoak.

## 6.2. Komunitatearen ekarpena

Goiena plataforma digitalean, 90 sarrera inguru izaten dira egunean. Horietan sartzen dira agendako hitzorduak ere. 90 sarrera horietatik 15 dira komunitateko kideek igotzen dituztenak, gainerakoak Goienako kazetariak. 90 sarrera horietatik 8 sarrerek badaukate ikus-entzunezko produkzio bat, eta ia denak Goiena-ko kazetariak ekoiztutakoak dira. Goiena-ko webgunean (komunitateko atalaz aparte) argitaratzen diren albisteen %85 kazetariak berek ekoizten dituzte. Gainerakoak, komunitatean argitaratutako edukietatik datoz, edizio lan bat egin ondoren. Komunitatean 140 talde, elkarte, erakunde edo norbanako daude izena emanda. Horiei gehitu behar zaizkie bloga duten 60 pertsonak.

Tolosaldeko Ataria webgunean 7-8 albiste argitaratzen dituzte egunean, denak Ataria komunikabideak berak ekoiztuta. Albiste horiek beti daukate testua, eta gehienetan argazkia ere. Hiruzpalau albistek audioa ere badaukate, eta asteburuko albisteak argazki galeria bat. Astean behin, bideo editatu bat sartzen dute. Komunitatetik egunean albiste bat sortzen da, batzaz beste.

Guaixe plataformak 9-10 albiste bitartean argitaratzen ditu egunean, batez beste. Eta beste albiste bat argitaratzen da komunitatean. 2013ko urritik argitaratutako edukien %4,6 dira bideoa daukatenak, eta %5,5 argazki galeria daukatenak. Audioa daukatenak %1,7 dira. Komunitateak sortutako albisteak dira albiste guztien %8,2.

Uriola taldean dauden komunikabideek egunean batez beste 12 albiste argitaratzen dituzte webgunean, eta beste 8 albiste sortzen dira komunitatetik. Komunitatetik sortutako albisteen bi heren erakunde batek sortutakoa izaten da. Egunean agertzen diren 20 albisteetatik 16k badaukate argazkiren bat edo argazki galeria bat. Bakarrak dauka audioa eta bik daukate bideoa.

## 7. Audientziak

Euskarazko hedabideen merkatuaren tamaina oso handia da, eta nagusiki, "hizkuntza komunitatearen nukleoan hedatzen dira". Nolanahi ere, euskarazko produktuek erdarazko merkatuan lehiatu behar dute, hau da, "merkatu handiagoa duten eta ekonomikoki sendoagoak diren komunikabideak dituzte lehiakide". Euskarazko komunikabideen audientziak ondoko hauek dira, Hekimen-ek CIESen 2007ko datuetatik ateratakoen arabera:

- **Egunkariak:** 123.000 irakurle
- **Aldizkariak:** 284.000 irakurle
- **Irratiak:** 173.000 entzule
- **Telebistak:** 169.000 ikusle
- **Guztira: 450.000 hartzaile**

Datu horietan ez dira ageri Interneteko audientziak, 2007tik hona asko garatu den euskarria delako. Datu eguneratuak emango dira jarraian. Bezero potentziala 780.000 lagunekoa da. Bistan denez, hain segur ez dira 450.000 lagun desberdin, irratia entzuten, telebista ikusten, herriko aldizkaria irakurtzen edota egunkari bat hartzen dutenen artean, errepikatzen diren pertsona asko egon daiteke. Halaber, datu horiek zaharkituak daude, gaur egun Internet gero eta kanal garrantzitsuagoa delako. Dena den, 2016an oraindik, paperak funtsezkoa izaten jarraitzen du. Tokiko aldizkari gehienak etxe guztietara bidaltzen dira edo harpidetza bidez jasotzen dira, paperak jarraitzen du izaten euskarri nagusia.

Hala ere, gero eta gehiago hartu behar da kontuan Interneten eragina, tokiko komunikabideetan ere. Tokiko komunikabide gehienei galdetegiak pasa zaizkie; denek ez badute erantzun ere, jasotako erantzunek balio dute argazki nahiko adierazgarri bat ateratzeko.

### 7.1. Internet-eko audientzia

Webguneetako bisita kopuruei dagokienez, agerkari gehienen bisita kopurua gorantz doa; Tolosaldeko Atariak, esaterako, 4 urteko ibilbidea soilik badu ere, 95.903 bisitako (hilabetea) langa pasa zuen 2016ko ekainean. Baleikek ere errekor historikoa izan du abuztuan, 80.000 bisita baino gehiagorekin.

2016ko iraileko datuak kontuan hartuta (Hekimen-en datuak), Goiena da sesio gehien dituen webgunea (154.418), tokiko euskarazko hedabideak aztertuz gero. Goienaren ondoren Uztarria dago (98.625)

eta Uztarriaren atzetik daude Tolosaldeko Ataria (76.967), Baleike (65.489), Urola-Kostako Hitza (47.052), Aiaraldea (44.751), Anboto (38.321), Oarso-Bidasoako Hitza (35.173), Goierriko Hitza (30.447), Maxixatzen (27.524) Erran (24.256), Urumeako Kronika (24.193), Barren (23.241) eta Guaixe (20.184). 20.000 bisiten azpitik daude, hurrenez hurren, Karkara (18.765), Otamotz (18.331), Irutxuloko Hitza (15.216), Busturialdeko Hitza (13.798), Alea (11.855), Pil-pilean (11.400), Hiruka (10.471), Euskalerrria irratia (7.820), Txintzarri (4.480), Euskal Irratiak (2.963) eta Aikor (1.590).

Zentzu horretan, azpimarragarria da azken urteetan egindako lana. Hedabide asko Tokikom plataformaren barruan sartu dira, eta horren bidez, berrikuntza ugari sartu dituzte webguneetan: inkestak, porrak, argazki lehiaketak. Webguneak gero eta dinamikoagoak, osatuagoak dira eta horrek irakurle kopurua erakartzen du.

Datu horiekin dirahilabeteko bisitabakarkopuruak, noski. Interesgarriak dira, hala ere, webgune bakoitzak sortzen duen mugimendua islatzen dutelako. Nabarmentzekoak dira Azpeitia bezalako herri bateko komunikabideak hilabeteko 100.000 bisita edukitzea, gutxi gora behera. Biztanle askoz gehiago dagoen beste eskualde batzuetan ez dira hurbiltzen kopuru horietara. Goieneren datuak handiagoak dira, baina biztanle kopuru zabalagoa ukitzen dute. Datu horiek erakusten dutena da webgunean mugimendua baldin badago, bisita kopuruak gora egiten duela. Mereziko luke sakonki ikertzea zergatik daukaten batzuek bisita gehiago, zer den bisita kopuruak gora egiten duen hilabeteetan eskaintzen dutena.

## 8. Ondorioak

Alde batetik, ikerketa honek balio du berresteko euskarazko hedabideek gizartean duten garrantzia. Euskal Herriko zatirik handienean tokiko euskarazko hedabideak daude, eta azken urteetan berriak ere sortu dira, hutsetik edo hainbat komunikabideren arteko elkarlanetik.

Tokiko euskarazko hedabideek lan sektore garrantzitsua izaten jarraitzen dute; langile ugari egiten dute lan bertan. Horretaz gain, hedabide horiek babes sozial handia dute. Euskaltzaleen artean erreferentzialtasun handia duten hedabideak dira, eta garrantzitsua da euskaltzaleek egiten duten lana. Izan ere, hedabide bakoitzeko langileez gain – horietako batzuk boluntarioak dira –, laguntzaile sare handia dute hedabide guztiek: iritzi zutabeak idazten dituzten

kolaboratzaileak, kultur ekitaldiak antolatzen dituztenak, irrati saioak egiten laguntzen dutenak, eta abar. Zentzu horretan, azpimarragarria da eskualde erdaldunenetan euskaltzaleen topagune badirela hedabide horiek, eta euskal nortasunaren biziraupenean ere paper garrantzitsua betetzen dutela: Bilboko Uriola, eta Arabako Aleak, esaterako.

Horrez gain, nabarmendu behar da kolaboratzaile horiek egiten duten doako lanaren balioa. Ikertutako laginetan, kolaboratzaileek sortzen dute webguneko ekoizpenaren %15 eta %40 bitartean. Nahiz eta ekoizpen horrek edizio lan bat eskatzen duen gero, kontuan hartu behar litzateke ekoizpen hori soldatetan ordaindu behar balitz, tokiko komunikabideen ekoizpen erreala orain dagoena baino dezente garestiagoa litzatekeela. Hots, aurrekontuak kalkulatzekoan, ez da neurtzen doako lanaren balioa, ez eta ere batez besteko soldatak baino apalagoak izatea. Horrelako aldizkariak egiteko benetan behar litzatekeen dirua askoz handiagoa da.

2013. urteko ikerketan ondorioztatu zen moduan, hedabideen atomizazioa da beste errealitateetariko bat. Atomizazio horren ondorioz, hedabide bakoitzak bere aldetik funtzionatuz gero, indar asko xahutzeko arriskua dago. Nolanahi ere, atomizazio horri aurre egiteko hedabideak elkartzen ari dira. Tolosaldeko Atariaren sorrera izanik horren lekuko nabarmena.

Azken ondorioa prekarietate ekonomikoa da; baliabide mugatuak dituzte hedabideek eta krisiaren ondorioak jasaten ari dira: harpidetzak mantentzeko zailtasunak dituzte, eta publizitateak ere behera egin du. Diru-laguntzek behera egin dute zenbait hedabiderentzat, eta hedabide horietako langile askok eta askok borondatez ere egiten dute lan. Zentzu horretan, tokiko hedabideek ehuntzen eta elkarlanean proiektuak sortzen jarraitu behar dute, eta erakunde publikoek euskarazko tokiko hedabideak lagundu behar dituzte.